

TOLOSA / 'Oparitu euskaraz' kanpaina martxan jarri du berriro ere Udalak Eguberrien atarian

'Irakurri eta oparitu' liburu gomendagarrien gidaz gain, euskarazko produktuen 1.000 katalogo bidaliko ditu etxeetara

J.M. REQUENA/

ORDIZIA. DV. Eguberrien atarian, Irakurri eta Oparitu gida osatu eta aste honetan bertan helarazi du etxeetara, postaz, Ordiziako Udalak, euskarazko liburuen kontsumoa bultzatu nahian. Irakurri eta Oparitu egitasmoak hirugarren urtea du aurtengoa, eta Udaleko Euskara Zerbitzua, eta Hitzaro Euskara Elkartea dira ekimenaren sustatzaileak. Iaz arrakasta lortu zuen egitasmoak eta horrek bultzatu ditu antolatzaileak aurten ere liburu gomendagarrien gida kaleratzera. Izan ere, 2004an eta 2005ean, Irakurri eta Oparitu zerrendako ia 200 liburu erosi zituzten guztira beste horrenbeste ordiziarrek.



Euskarazko liburuen irakurketa sustatu nahi du Udalak. [DV]

Aipatu gida honetaz gain, Euskarazko Produktuen Katalogoa ere banatuko du aurten Udalak, Oparitu Euskaraz izendatu duen kanpainaren barruan. Liburuez gain, euskarazko jostailu, musika, informatika, aldizkari, bideo eta aisiarako beste hainbat produkturen berri ematen du Euskarazko Produktuen Katalogo honek. Merkatuko alerik interesgarrienak eta berrienak erakusten dira katalogoan, baita horien gaineko informazio zehatza ere: egilea, gutxi gorabeherako prezioa, ezaugarriak...

Gurasoek merkatuan dauden euskarazko produktuen berri izan dezaten, «umeei eta gazteei opariak egitean gurasoek kontuan har dezaten» banatuko du Udalak katalogoa, Euskara Zerbitzuko esanetan. Gurasoei begira kaleratu ohi dute katalogoa Euskal Herriko beste hainbat udalek ere, euskararen erabilera aisialdian sustatu nahian. Aurten, Goierriko herrietara lehenengoz iritsiko da, Goiekiren bitartez.

Ordiziako Udalak guztira 1.000 katalogo eskuratuko ditu eta ia denak etxeetara bidaliko ditu. Hain justu ere, 16 urtez azpiko haurrak dituzten familietara helaraziko du katalogoa Euskara Zerbitzuak eta banaketa eskoletan eginda; hots, eskola-umeen eskutik. Adin horretako seme-alabarik ez duen herritarrek, Euskara Zerbitzuan bertan eskuratu ahal izango du.

100 liburu paneletan

Irakurri eta Oparitu gidak biltzen dituen ehun liburuak ikusgai izango dira liburutegiaren atarian azaroaren 29tik urtarrilaren 4era, eta horietakoren bat oparitarako erosteko asmoa azaltzen duen herritarrari, deskontu txartel bat emango diote Liburutegian bertan, herriko Mujika liburu-dendan ohi baino prezio merkeagoan (%25 merkeago) eskura dezan. Funtsean, euskarazko liburuak irakurri eta oparitzearen truke deskontuak lortzean datza Irakurri eta Oparituk. Eskola-umeak dituzten gurasoei, euskaltegietako ikasleei eta Hitzaroko bazkideei zuzenduta dago bereziki ekimena.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Haur Liburu Mintegiaren laguntzarekin, 2005ean argitaratutako 100 liburuko zerrenda osatu du Euskara Zerbitzuak argitaletxeen laguntzarekin, adin taldeka sailkatuta. Liburu gomendagarrienak eta argitaletxeek emandakoak biltzen ditu, beraz.